

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasun Departamentuak beste ikerketa bat egin du gripeak eta beste arnas infekzio batzuek heriotza-tasan duten benetako eragina kuantifikatzeko

*Ikerketa pilotua iaz egin zuten Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (ISPLN), NOGren Mikrobiologia Zerbitzuak eta Tanatorios Irache taldeak, eta hauteman zuen ikertutako hildako askok eta askok arnas infekzioak zituztela.*

Asteartea, 2017.eko abenduak 26

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (ISPLN), Nafarroako Ospitaleguneko (NOG) Mikrobiologia Zerbitzua eta Tanatorios Irache taldea munduan aitzindari den ikerketa bat ari dira egiten, gripeak eta beste arnas infekzio batzuek heriotza-tasan duten benetako eragina kuantifikatzeko, eta gripearen aurkako txertoak heriotzen prebentzian duen eragina kuantifikatzeko.

Urtero, gripearen uhinekin batera, heriotza-tasa handitu egiten da, eta, batzuetan, % 30 baino handiagoa izaten da.

Nafarroan, denboraldi batzuetan, 500 heriotza baino gehiagoko igoera izan da, nahiz eta, denboraldiaren arabera, 10-35 kasu artean bakarrik lortu den gripea diagnostikatzea pazientea hil baino lehen.

Joan den urtarrilean eta otsailean, ikerketa pilotua egin zen Nafarroan, eta hauteman zuen ikertutako hildako askok eta askok (% 47k) zituztela arnas infekzioak.

Gripearen birusagatiko infekzioa hildakoen % 18k izan zuen, eta arnas birus sintzitala, haurretan bronkiolitisa eragiten duelako ezagutzen dena, hildako helduen % 12an hauteman zen.

Hildakoen senideek oso begi onez ikusi zuten ikerketa pilotua, eta ikerketa berri honen oinarriak ezartzeko balio izan du, zeinak Carlos III.a osasun-institutuaren finantzaketa jaso baitu datozen hiru urteetarako.

Finantzaketa horrekin, gripearen birusagatiko eta beste arnas birus batzuegatiko infekzioa aztertu nahi da hiltzen diren pertsonetan, edozein dela ere heriotzaren arrazoia. Horretarako, sudur- eta faringe-lagin bat besterik ez da hartu behar, Lehen Mailako Arretako pazienteetan hartzen direnen antzekoa. Honetan laguntzen ari da Tanatorios Irache taldea; hango profesionalek hildakoen senideak informatuko dituzte, eta laginak eskuratuko dituzte, senideen baimen informatua lortu ondoren. Laginak NOGren Mikrobiologia Klinikoaren Zerbitzuan aztertuko dira. Ikerketa 10-12 astez egingo da hurrengo gripe-denboraldian. Aurreikusten da ikerketa errepikatu egingo dela datozen bi urteetan, gripearen urteko aldakortasunaren berri izateko.

ISPLNk eta NOGk hamarkada bat baino gehiago daramate elkarrekin

lankidetzan zaintza epidemiologikoaren eta gripeari buruzko ikerketaren arloan. Horretarako, Europar Batasunaren Horizonte 2020 programaren, Gaixotasunak Kontrolatzeko Europako Zentroaren, Carlos III.a osasun-institutuaren eta La Caixa Fundazioaren finantzaketa jaso dute.

Bi erakundeek askotan kolaboratzen dute "Global Influenza Vaccine Effectiveness" txostenetan, zeinek laguntza teknikoa ematen baitiote Osasunaren Mundu Erakundeari.

Tanatorios Irache taldeak, zeina estatuko hileta-sektoreko aitzindari izan baita duela 40 urte Nafarroako enpresa gisa sortu zenetik, 60 zentro baino gehiago ditu, gaur egun, Foru Komunitatean.